



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/09/22

Bizkaiko Politika Orokorreko osoko bilkurea datorren eguaztenean, irailaren 28an, egingo da Gernikan

Bizkaiko Batzar Nagusiek eguaztenean, irailaren 28an, egingo dabe X. legealdiko politika orokorreko lehenengo osoko bilkurea. Aldundiak berak eskatuta, eta Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek proposamena Mahaiari eta Bozeroaleen Batzarrari jakinarazo ostean, Lurraldeko 51 ordezkariak deitu ditu Gernikako Batzarretxean egingo dan osoko bilkurara. Bilkurea, Unai Rementeriak Bizkaiko Foru Aldundiaren agintean aurrera eroan dauen kudeaketaren eta gobernu ekintzaren politikak hemendik aurrera izango dauen orientazioaren inguruan egituratuko da.

Saioa, aurreko legealdietan Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren Adierazpen Publikoa esaten jakonagaz hasiko da. Lehenengo aldiz bere azalpenerako ordu biko mugea izango dauen Rementeriaren berben ostean, batzarretako sei taldeek, ordubeteko atsedenaldiaren ostean, gehienez be 30 minutuko txandea izango dabe Bizkaiko Aldundiko arduradunari erantzuteko, igaz onartu zan Batzarretako arautegi barriak marketan dauen moduan.

Eztabaidak Ahaldun Nagusiaren erantzunagaz jarraituko dau, eta horren ostean Batzarretako taldeen txandea izango da barriro be, ordezkari gitxien daukien taldeetatik hasita (Mistoa, Bizkaiko Popularra, Podemos Bizkaia, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Euzko Abertzaleak). Talde bakotzak 10 minutu izango ditu Rementeriari erantzuteko.

Eztabaidea amaitu ostean, sei taldeek 48 orduko epea izango dabe urriaren 5eko goizeko 10:00etatik aurrera eztabaidatuko diran ebazpenerako proposamenak aurkezteko. Hori be Bizkaiko Batzarren arautegi barriaren aplikazioak dakarren barrikuntzea da. Mahaiak, eztabaidaren gaiagaz bat datozen ebazpenerako proposamenak onartuko ditu tramitera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
22/09/2016

El pleno de Política General de Bizkaia se celebrará el próximo miércoles 28 en Gernika

Las Juntas Generales de Bizkaia celebrarán el miércoles 28 de septiembre, el primer pleno de política general de la X legislatura. A petición de la propia Diputación, y tras comunicar la presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, la propuesta a los miembros de la Mesa y Junta de Portavoces, ésta ha convocado a los 51 representantes del Territorio a una sesión plenaria en la Casa de Juntas de Gernika que girará en torno a la gestión de Unai Rementería al frente de la Diputación Foral de Bizkaia y a la orientación política futura de la acción de gobierno.

La sesión arrancará con lo que en legislaturas pasadas se venía a denominar la Declaración Pública del Diputado General de Bizkaia. Tras las palabras de Rementería, quien tendrá por primera vez una limitación de tiempo de dos horas en su exposición, los seis grupos junteros dispondrán, tras un receso de una hora, de un turno de intervención de 30 minutos como máximo para responder al responsable del Ejecutivo vizcaíno, como marca el nuevo reglamento de la Cámara aprobado el año pasado.

El debate continuará con la réplica del Diputado General, y, seguidamente, los grupos junteros intervendrán de nuevo, de menor a mayor representatividad (Mixto, Popular Vizcaíno, Podemos Bizkaia, Socialistas Vascos, EH Bildu y Nacionalistas Vascos) con un tiempo de 10 minutos para responder a Rementería.

Concluido el debate, los seis grupos dispondrán de un plazo de 48 horas para presentar propuestas de resolución que serán debatidas a partir de las 10 horas del miércoles 5 de octubre, lo que representa una novedad este año en aplicación del nuevo reglamento de Cámara vizcaína. La Mesa admitirá a trámite las propuestas de resolución que sean congruentes con la materia objeto del debate.